

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUA
2021eko MARTXOAREN 9ko OHIKO BILKURARI BURUZKO
AKTA**

Bertaratuak:

Beatriz Artolazabal andrea, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua eta Kontseiluko presidentea.

Paul Ortega jauna, eLankidetzaren - Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.

Sofia Marroquín Guerrero andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko presidentea eta Kontseiluko presidenteordea.

Lucía Torrealday Berrueco andrea, hezkuntza-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Nerea Urien Azpitarte andrea, osasun-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jauna, ogasun-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Jone Miren Fernández Landa andrea, nekazaritza-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Alexander Boto Basteguieta jauna, ingurumen-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Marian Olabarrieta Ibarondo andrea, gizarte-ongizatearen eta gizarte zerbitzuen alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Iker Atxa Zaitegi jauna, kanpo-ekintzaren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Zuriñe Elordi Romero andrea, Emakunde ordezkatzuz.

Leixuri Arrizabalaga Arruza andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen, Berdintasunen eta Herritarren Partaidetzaren Batzordeko presidentea.

Ainhoa Campo Arenaza andrea, Arabako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Ignacio Rodríguez Puertas jauna, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz.

Fernando San Martín jauna, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Ernesto Sainz Lanchares jauna, EUDEL ordezkatzuz.

Juan Manuel Balerdi Urdanpilleta jauna, Euskal Fondoa ordezkatzuz.

Mila Domínguez Vázquez andrea, Iñigo Eguren Valera jauna, Josu Urrutia Beristain jauna, María Viadero Acha andrea, Natalia Rodríguez Fernández andrea, Eneko Gerrikabeitia Zenarruzabeitia jauna, Iñaki Orube Mendia jauna, Olga García Martínez andrea eta Irene Molero Gurruchaga andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatuz.

Carlos Ascunze Elizaga jauna, Patricia Bárcena García andrea, Estela Ciprian Santos andrea, Elsa Fuente Do-Rosario andrea, Víctor Manuel Rodríguez Rivera jauna eta Gorka Urrutia Asua jauna, garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragile batzuk ordezkatuz.

Noemí de la Fuente Pereda andrea, Kontseiluko idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Gainera, presidentek gonbidaturik, José Antonio Rodríguez Ranz jauna bertaratu da, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea.

Tokia: eLankidetzako egoitza, eta birtuala Teams bidez.

Eguna eta ordua: 2021eko martxoaren 9an, 12:00etan.

Beatriz Artolazabal andreak bertaratuei ongi etorria egin die, eta 12:06an bilkurari hasiera eman dio, honako gai-zerrenda honi jarraikiz:

1. Kontseiluaren osaera berriaren aurkezpena.
2. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluko presidenteak bilkurarako proposatutako gai-zerrenda aurkeztu eta onartzea.
3. Aurreko bilkuraren akta onartzea.
4. Batzorde Iraunkorrerako ordezkariak hautatzea.
5. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluko langileen Kontseilu Errektorera ordezkariak hautatzea.
6. Garapen jasangarrirako politiken koherentziarako aurrerapenei buruzko informazioa eta lantalderako ordezkariak izendatzeko deia.
7. eLankidetzaren eta foru-aldundien 2021eko plan, aurrekontu eta deialdiei buruzko informazioa.
8. Garapenerako lankidetzari buruzko euskal legea berritzeko prozesuari buruzko informazioa.
9. Bestelakoak eta galde-eskeak.

1 KONTSEILUAREN OSAERA BERRIAREN AURKEZPENA

Kontseilua berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitzeari eta bertan kokatzeari, lehenbizi pandemiarengatik eta gero sailaren egitura organiko eta funtzionala aldatu izanagatik 2020an bilkurak deitzeko zailtasunei eta legegintzaldi berrirako erronkei —besteak beste, garapenerako lankidetzari buruzko euskal legea berritzea eta garapenerako lankidetzaren politiken koherentzian sakontzea— buruz sarrera labur bat egin ondoren, Beatriz Artolazabal andreak Kontseiluko osaera berria aurkeztu du, araudi berriaren arabera hiru urtean behin egin beharreko berritzea gauzatu ondoren, eta lehen osoko bilkurari hasiera eman dio.



resolucion
nombramiento mien

2 KONTSEILUKO PRESIDENTEAK BILKURARAKO PROPOSATUTAKO GAI-ZERRENDA AURKEZTU ETA ONARTZEA.

Beatriz Artolazabal andreak azaldu duenez, bilkuren gai-zerrenda aldeztu aurretik onartzen da, Batzorde Iraunkorraren baitan. Alabaina, bilkura honen kasuan hori ez dela posible izan gaineratu du, hiru aldiko aldi berrirako Batzorde Iraunkorra osatu behar duten pertsonak bilkura honetan izendatu behar direlako kide berrien artean. Jarraian, gai-zerrendaren proposamena aurkeztu du, eta aho batez onartu da.

3 AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA

Inork inolako oharrik egin ez duenez, bertaratuek aho batez onartu dute aurreko bilkuraren akta.

4 BATZORDE IRAUNKORRERAKO ORDEZKARIAK HAUTATZEA

Beatriz Artolazabal andreak gogora ekarri du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzko irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 5.4 eta 3.7 artikuluen edukia. Ordezkatutako talde bakoitzaren proposamenari jarraikiz, aho batez onartu da Batzorde Iraunkorra honako pertsona hauez osatuta egongo dela.

- Beatriz Artolazabal, presidente gisa.
- Paul Ortega, eLankidetzako zuzendari gisa.
- Ignacio Rodríguez, Eusko Jaurlaritzaz bestelako administrazio publikoak ordezkatuz (ordezkoa: Ainhoa Campos).
- Iñaki Orube eta Mila Domínguez, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatuz (ordezkoak: Eneko Gerrikabeitia eta María Viadero).
- Gorka Urrutia, beste euskal gizarte-eragile batzuk ordezkatuz (ordezkoa: Igone Revilla).

5 GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUKO LANGILEEN KONTSEILU ERREKTORERAKO ORDEZKARIAK HAUTATZEA

Beatriz Artolazabal andreak adierazi du, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortzen eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 9. artikuluen arabera, Kontseilu Errektoreak, eLankidetzaren erabakitzeke, administrazioko eta kontroleko organo gorena izaki, hiru kide izan behar dituela Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua ordezkatuz, kontseilu horrek langileen artean hautatuak. Eta gogora ekarri du gizonen eta emakumeen ordezkaritza orekatua sustatu behar dela.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeko ordezkariak eta hartan bilduta ez dauden euskal gizarte-erakundeek proposaturik, aho batez onartu da honako pertsonak hauek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua ordezkatzea eLankidetzako Kontseilu Errektorean:

- Sofía Marroquín andrea eta Josu Urrutia jauna (ordezkoak: Iñigo Eguren jauna eta Olga García andrea).
- Patricia Bárcena andrea (ordezkoa: Elsa Fuente).

6 GARAPEN JASANGARRIRAKO POLITIKEN KOHERENTZIARAKO AURRERAPENEI BURUZKO INFORMAZIOA ETA LANTALDERAKO ORDEKARIAK IZENDATZEKO DEIA.

Beatriz Artolazabal andreak gogora ekarri duenez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren eginkizuna da, besteak beste, urtean txosten bat egitea euskal administrazio publikoen jardunek koherentzia-printzipioa zenbateraino betetzen duten jasotzeko, eta 2019an lantalde bat sortu zen Kontseiluaren baitan alor horretan.

Noemí de la Fuente andreak, gaurko egunera arte taldeak egindako aurrerapenen berri eman du, eta gogora ekarri du beharrezkoa dela hartan parte hartzeko proposatutako pertsonen izendapenak berritzea, martxoaren 23ra arte hamabost eguneko epea irekiz hautagaiak aurkezteko.



PRESENTACIÓN_Ava
nces del grupo de tr

7. LANKIDETZAREN ETA FORU-ALDUNDIEN 2021eko PLAN, AURREKONTU ETA DEIALDIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Beatriz Artolazabal andreak aditzera eman du, 2018an, kontuan hartuta bere eginkizunen artean Kontseiluak aholku, informazio eta laguntza ematen duela eta hobetzeko proposamenak egiten dituela euskal lankidetzaren publiko osoarentzat, Batzorde Iraunkorrek erabaki zuela Kontseilua osatzen duten administrazio publikoetako bakoitzak, urteko lehen osoko bilkuran, bere urteko planak, aurrekontuak eta lankidetzaren deialdiak aurkeztea.

Ainhoa Campos Arenaza andreak bere aurkezpena egin du, Arabako Foru Aldundia ordezkatzuz.



presentacion
DFA.pdf

Jarraian, Nacho Rodríguez Puertas jaunak bere aurkezpena egin du, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz.



DFB Consejo Vasco
Cooperación 9.3.202

Foru-erakundeekin amaitzeko, Fernando San Martín Gubía jaunak hartu du hitza, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz. Gida-plan berria egiteko prozesuari buruzko informazioa partekatu du, zenbait aurrekontu-daturen berri emanaz, baina segidan ñabartu du aurrekontua onartzeke dagoela, eta deialdia maiatzean argitaratzea

aurreikusten dutela. Bilkuraren ondoren, onartutako aurrekontua eta deialdia arautzen duten oinarriak partekatu ditu gurekin:



GFA_Lankidetzeta_20
21 aurrekontua.pdf



GFA_Bases
reguladoras 2021 oi

Horrez gain azpimarratu du, batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2030 Agendaren aldeko apustu egin duela, talde eragile bat sortu baitu Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritzaren parte-hartzearekin, eta, bestetik, Aldundiaren 2022ko aurrekontua Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat etortzea espero dutela.

Azkenik, eLankidetzako zuzendari Paul Ortega Etcheverry jaunaren txanda izan da.



Plan acción,
presupuesto, convo

8. GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL LEGEA BERRITZEKO PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Beatriz Artolazabal andreak aipatu duenez, XII. legegintzaldirako Gobernu Programaren 105. konpromisoak aurreikusten du garapenerako lankidetzaren lege bat egitea eta onartzea. Horrez gain, 2020ko azaroan onartutako legegintza-programak aintzat hartzen du garapenerako lankidetzari buruzko Legea Gobernu Kontseiluari helaraztea, onar dezan, eta bidezko bada, Legebiltzarrari bidal diezaion 2021eko bigarren seihilekoan.

Paul Ortega jaunak lege berria egiteko prozesurako aurreikusitako aurrekariak, helburuak eta kronograma aurkeztu ditu, eta gogora ekarri du titularrak eta ordezkokoak datorren asteartean egingo den azterketa-bilkurara deituta daudela, bertan, Koldo Unceta Satrustegui jaunak aurkeztuko duelarik 1/2007 Legearen potentzialitateak eta mugak aztertzen dituen txostena.



PRESENTACIÓN_Pro
ceso elaboración an

Beatriz Artolazabal andreak prozesuko hiru helburu nagusiak azpimarratu ditu: indartzea, zabalitzea eta aurrera egitea. Berriz ere adierazi du lehentasunezko helburu bat dela Gobernuarentzat. Eta Kontseiluko kideak animatu ditu prozesuan parte hartzera, ahalik eta adostasunik zabalena lortzeko helburuarekin.

Sofía Marroquín andreak galdetu du Koldo Uncetaren dokumentua abiapuntua ote den. Paul Ortega jaunak erantzun dio erreferentziazko dokumentua ez dela. Egungo legearen potentzialitate eta ahuleziei buruzko lehen analisi bat da. Baina proiektzio-ariketa bat egin

beharra dagoela, zer lankidetzaz nahi dugun eta horretarako zer lege-esparru behar dugun ikusteko.

9. BESTELAKOAK ETA GALDE-ESKEAK.

Noemí de la Fuente andreak gogora ekarri du Batzorde Iraunkorra datozen asteetan bilduko dela, Kontseiluaren osoko bilkuraren urteko gainerakorako lan-proposamena ezartzeko. Eta berriz ere adierazi du, aurreko aldian adostu zenez, ohiko 4 bilkuretatik bi uda baino lehen eta gainerakoak udazkenean egiten ahaleginduko direla. Horrez gain, gogora ekarri du 2021ean beste lan-saio espezifikiko bat deitzeko aukera izango dela, esaterako, garapenerako lankidetzari buruzko legearen gaineko txostena aztertzekeo bilkura, martxoaren 16rako aurreikusita dagoena.

Aztertzekeo beste gairik ez dagoenez, Beatriz Artolazabal andreak parte-hartzea eskertu du, eta 13:30ean bilkura amaitutzat eman du.

NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARIA**

BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO
PRESIDENTEA**